

OROITIDAZKIA 2016



EUSKALTZAINDIA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3	3. EUSKALTZAINDIAREN ZERBITZUAK	25
1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK	4	I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua	25
I. Barneko jarduera	4	II. Onomastika zerbitzua	26
II. Kanpoko jarduera	6	III. Argitalpen zerbitzua	26
III. Bestelakoak	16	IV. Informatika eta Telekomunikazioa zerbitzua	28
		V. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua	28
		VI. Jagonet zerbitzua	28
2. JARDUERA AKADEMIKOA	17	4. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK	29
I. Lexikografia	17	5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA	35
II. Gramatika	18	6. BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA	38
III Dialektologia	18	I. Balantzea	38
IV. Onomastika	19	II. Galdu-irabazien kontua	39
V. Literatura	20		
VI. Ahoskera	20		
VII. Jagon Saila	21		
VIII. Egiturazko batzordeak	22		
IX. R.M. Azkue sariak	23		



Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria

Zeinek bere arloan, gizartearen jarduna, eta Naturarena ere, itxuraz beti bat izaten da, etengabeko errepikapenekin. Urtaroen segida, adibidez, edo langilearen lana, behin eta berriro hasten da, ohiko betiko emaitzekin bukatzeko. Horrela, urtea, udaberriro zuhaitzen loraldiaz hasten da, handik hilabete batzuetara beren abarretan fruituak eskaintzeko. Okinak ere bere lantegian garauetarik irina ateratzen du, geroago ogiak, opilak zein gozokiak egiteko. Beti gauza bera egiten duela esan daiteke, baina jada Antzinatean Heraklitok irakatsi zigun bezala, itxurazko berdintasun horren atzean, gaiak eta materialak berdinak edo antzekoak izan arren, egunero antzeko baina, aldi berean, bestelako ekoizpenak prestatzen ditu. Eta horretan hizkuntzen akademiak ere antzeko lanak egin ohi ditu. Batzuetan lan horiek teorikoak dira. Beste batzuetan praktikoak, baina kasu guztietan helburu berberarekin, mintzairaren erabilera arautzeko, hiztunen premiak ase, eta okerrak zuzendu ahal izateko.

Ohiko arau morfologiko eta sintaktikoen bidetik, XIX. mendeko terminologia zientifiko eta teknikoaz gainera, Euskaltzaindiak bestelako arlo batzuk ere jorratu ditu 2016. urtean, betiere gure hizkuntzaren gaitasuna eguneratzeko helburuaz, zientziak eta humanistikak planteatzen dituzten erronkei erantzuteko.

Horrela, Euskaltzaindiak askotariko jardun akademikoa garatu du 2016. urtean.

Donostian, Luis Villasante Ikerdunak, besteak beste, *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* argitalpena aurkeztu da otsailaren 9an. Eredu metodologiko hori oinarri hartuta, halaber, Donostiako azken 250 urteotako euskararen bilakaera aztertu da abenduaren 20an egindako jardunaldian.

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, hainbat bilera eta ekimen izan dira. Bi aipatzekotan; otsailaren 12an, “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” izenburupean egin den jardunaldia, eta; urrian zehar, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Ondareari buruzko Europako Jardunaldiaren XVI. edizioaren kariaz eman diren bost hitzaldiak.

Ezaguna da 2017an, Ipar Euskal Herrian, Euskararen Elkargoa abian jarri dela. Egoeraren berritasuna gogoan izanda, azaroaren 19an, Baionako Euskal Museoan antolatu den Jagon jardunaldian erakunde berriak hurrengo urteetan gainditu beharreko erronkak aztertu dira. “Euskal Elkargoa sortzea eta euskararen geroa” lemapean egin da lehendik aipaturiko mintegia.

Gasteizen, urtarrilaren 21ean, *Araba/Alava, Los nombres de nuestros pueblos*, Patxi Salaberri Zaratiegik idatzirik liburuak aurkeztu da.

Nafarroan bi ekitaldi azpimarratuko nituzke, biak ala biak esangura berezikoak: apirilaren 29an Miguel Urmenetaren euskaltzain izandakoaren jaiotze-mendeurrenaren kariatara ekitaldia egin da, bai eta Osoko Bilkura ere Iruñeko Udalean. Irailaren 30ean, berriz, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egin du Osoko Bilkura historian lehen aldiz.

Esandako hauetaz aparte, Euskaltzaindiak jardun betea izan du 2016an. Hurrengo orrialdeetan, horren guztiaren berri zehatza aurkituko duzue.

I. BARNEKO JARDUERA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleak euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

Euskaltzaindiko Osoko bilkurak, hilean behin egiten direnak, batzorde akademikoetatik datozen hizkuntza-proposamenei arau gradua ematen die. Batzorde akademikoak egoitzan edo eta lurraldeetako ordezkarietan biltzen dira. Idazkariordearen zeregina da batzorde horien jarraipena eta koordinazioa aurrera eramatea.

Euskaltzaindiak bere egoitza Bilbon dauka. Osoko bilkurak eta zuzendaritza batzordearen bilerak, normalean, egoitzan eta Donostiako ordezkarietan egiten dira, nahiz eta, zenbait kasutan, erakunde edo elkarte batzuen gonbita onartzen den, eta horien egoitzetan bilera batzuk ere burutzen diren.

Zuzendaritza batzordea hamabostero biltzen da. Bere kideak dira euskaltzainburua, euskaltzainburordea, idazkaria, Iker eta Jagon sailtako buruak, kudeatzailea eta idazkariordea. Beraien zeregina da Euskaltzaindiaren funtzionamendu ona bermatzea. Kudeatzaileak eta idazkariordeak, joratu beharreko gaien arabera, ardura-dun bakoitzarekiko koordinazio-lanak burutzen dituzte. Zuzendaritza batzordeak 2016an hemeretzi bilera egin ditu.

I.1. Erakundearen 2016ko ekintza nagusiak

HILABETEA	EGUNA	TOKIA	JARDUERA
Urtarrila	29	Donostia	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura <input type="checkbox"/> Ageriko bilkura: Hilbert txostenak
Otsaila	26	Loiu	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Apirila	29	Iruñea	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura <input type="checkbox"/> Ageriko bilkura: Miguel Urmenetaren mendeurrena
Maiatza	27	Gernika-Lumo	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Ekaina	24	Baiona	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Uztaila	20	Vitoria-Gasteiz	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Iraila	22	Iruñea	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Urria	28	Bilbo	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura <input type="checkbox"/> Barrengo bilkura berezia
Azaroa	25	Donostia	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura
Abendua	16	Bilbo	<input type="checkbox"/> Osoko bilkura



Euskaltzainen urriko Osoko bilkura.

I.2. Adierazpenak

Dokumentu baten bitartez, Ipar Euskal Herriko erakundeentzat Euskaltzaindia aholku-emaile ofiziala eta hizkuntza kontuetan erreferentziazkoa izatea eskatu die Akademiak Garapen Kontseiluari eta Euskararen Erakunde Publikoari. Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan aholku emaile ofiziala da Euskaltzaindia, eta, ondorioz eta euskarari dagozkionetan, herri-erakundeek irizpenak, aholkuak eta txostenak eskatzen dizkiote. 2017ko urtarriletik aurrera sortuko da Ipar Euskal Herriko administrazio berria, eta Akademiak zein Euskal Konfederazioak izen bera proposatu dute: Euskal Elkargoa.

Jagon jardunaldietan, 2016ko azaroaren 19an, Baionako Euskal Erakustokian adierazpen bateratua egin dute Euskal Konfederazioak eta Euskaltzaindiak. 2017ko urtarrilaren 1etik Euskal Elkargoa indarrean izango denez, sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutuetan euskarren hizkuntza eskumena jaso behar dela esan dute erakunde biek. Korsikan, Britainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari "nolabaiteko izaera ofiziala" aitortu behar zaiola azpimarratu dute. Horretarako baliabide aski paratzea eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bideratzea eskatu da adierazpenean.



Maidier Hegi eta Xarles Videgain, Jagon jardunaldietan adierazpena irakurtzen.



Sei euskaltzain urgazle berriak.

I.3. Izendapenak

Sei euskaltzain urgazle berri.

Apirilaren 29an, Iruñean egin den Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak 6 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu. Hona hemen zerrenda, ordena alfabetikoan: Amaia Apalauza Olló, Xabier Erize Etxegarai, Maite Lakar Iraizoz, Patxi Petrirena Alzuguren, Rosa Ramos Alfaro eta Castillo Suarez Garcia.

I.4. Webgunea

2016an, Euskaltzaindiko web orrian txertatu diren berritasun aipagarrienak:

Euskaltzaindiaren Hiztegia sarean jarri da. Kontsultak modu errazean edo aurreratuan egiteko bilatzailea garatu da.

Webguneko Euskal Onomastikaren Datutegian, deituren inguruko irizpenak gehitu dira.

Webguneko Euskal Onomastikaren Datutegian, geoposizio-baliabideak gehitu dira.

I.5. Hilberri-txostenak

Urtarrilaren 29an, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, Juan Garmendia Larrañaga, Joshua A. Fishman, Emile Larre, Joseph Camino, Suzuko Tamura eta Jan Braun omentzeko.

Ondoko hilberri-txostenak irakurri dira:

Juan Garmendia Larrañaga (1926-2015) ohorezko euskaltzaina. Jose Mari Velez de Mendizabal euskaltzain urgazleak irakurri du txostena.

Joshua A. Fishman (1926-2015) ohorezko euskaltzaina. Mikel Zalbide euskaltzain osoak irakurri du.

Emile Larre (1926-2015) euskaltzain emeritua. Janbattitt Dirassar ohorezko euskaltzainak irakurri du.

Joseph Camino (1927-2015) ohorezko euskaltzaina. Xirpi Arbelbide ohorezko euskaltzainak irakurri du.

Suzuko "Ainhoa" Tamura (1934-2015) ohorezko euskaltzaina. Sho Hagio euskaltzale japoniarrak egin du txostena. Aizpea Goenaga idazle, antzerki zuzendari eta Etxepare Institutuko zuzendariak irakurri du.

Jan Braun (1926-2015) ohorezko euskaltzaina. Xabier Kintana euskaltzain osoak irakurri du.

II. KANPOKO JARDUERA

KONTSULTAK ETA IRIZPENAK

II.1. Kantonamendu berrien euskal izendapenak finkatu

Onomastika batzordeak, EiTbK hala eskatuta, Iparraldea hartzen duten kantonamendu berrien euskal izendapenak finkatu ditu. Ezaguna denez, 2014an kantonamenduen berrantolaketa gauzatu zen Frantzian eta, horren ondorioz, Iparraldeko kantonamenduen kopurua 24tik 12ra jaitسي da, 14ra

Jestaze eta Eskiula hartzen dutenak kontuan edukiz gero.

Aurreko deizioetan ez bezala, berri hauetan kantonamendua izendatzeko ez da beti bulego nagusia kokatuta dagoen herriaren izena erabili eta, esaterako, *Hendaye* zena gaur egun *Hendaye-Côte Basque-Sud* da. Izendapen berri horiek zailtasunak sortzen dituzte euskaratu nahi ditugunean, *Montagne Basque*-k eta *Côte Basque-Sud*-ek adibidez, Euskal Herria bere osoan hartzen badugu, baina era ofiziala errespetatu behar denez gero, ez dira izendapenak ez aldatu eta ez bakundu ere.

II.2. Euskaltzaindiak Iruñeko kale-izendegia berraztertuko du

Lehendabizikoz egiten da, hiriko kale guztiak hartuko ditu eta 12.000 euroko aurrekontua baliatu du Udalak zeregin horretarako. 2017an amaitzea aurreikusten da. Iruñeko Udalak Euskaltzaindiari emango dio enkargua, kontuan hartuz 1986ko abenduaren 15eko Euskararen Foru Legeak dioena: Foru Erkidegoan aplikatzekoak diren "hizkuntza arauak ezartzeko, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala".

EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA

II.3. Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa hizpide

Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa hizpide izan da otsailaren 9an, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean egin den jardunaldian, Euskaltzaindiak, Donostia 2016 Fundazioak eta Kutxa Fundazioak antolatuta.

Euskararen Historia Soziala lantzeko bide bat mahai gainean jarri eta horren nondik norakoa azaldu da. Adierazi dutenez, metodologia hau oinarri hartuta, azken 250 urteotako Donostiako euskararen bilakaera ikertuko da.

Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa liburua aurkeztu dute hedabideen aurrean aipatu hiru erakundeok. Ondoren gaiari buruzko mintegia egin da.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Paya Donostia 2016ren kultur programaren zuzendariak, Antonio Campos Kutxa Fundazioaren ordezkariak eta Mikel Zalbide EHS egitasmoaren zuzendariak aurkeztu dute liburua. Jarraian egin den mintegian, aurrekoekin batera, Lionel Jolyk eta Nikolas Gardner-ek hartu dute parte.



Antonio Campos, Mikel Zalbide eta Xabier Paya.

II.4. Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikoan

Abenduaren 20an, Luis Villasante Ikergunean egin den jardunaldian, hizkuntzen historia soziala lantzeko nazioarte mailan berritzailea den metodologia aurkeztu eta aplikatu da; bestetik, azken 250 urtean Donostiako bilakaera soziolinguistikoa zein izan den ere azaldu da. Andres Urrutia euskaltzainburua; Xabi Paya, Donostia 2016ko kultur programaren zuzendaria; eta Antonio Campos, Kutxa Fundazioko ordezkaria izan dira ekitaldian.

JARDUNALDI ETA MINTEGIAK

II.5. “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia

Otsailaren 12an, “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia egin da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Jardunaldi horren bitartez, Euskaltzaindiak prozesu bati hasiera eman eta eztabaida aldia zabaldu nahi du. Iazko udazkenean, Patxi Saez soziolinguistak Euskaltzaindiari eskari zehatza egin zion: azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatzeko prozesuan gidaritza har zezala. Bere ustez, azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatu beharra dago. Euskararentzat dinamika berria sorraraztea beharrekotzat jotzen du eta Euskaltzaindia prozesu horren erdigunean kokatzen du.

Jardunaldiaren ostean, Euskaltzaindiko Sustapen batzordeak bilera egin eta emaitza aztertu du. Hurrengo urratsa honako hauxe izan da: eztabaidari jarraipena ematen dion prozesua Sustapen batzordeari proposatzeko, eta ondoren, Zuzendaritzak aztertzeko, Sustapen batzordeak aldirako lantalde bat eratzea.



Kike Amonarriz, Jasone Mendizabal eta Jon Aizpurua.

II.6. "Euskara Foru Aldundien ibilbidean" jardunaldia

"Euskara Foru Aldundien ibilbidean" izeneko jardunaldia egin dute otsailaren 19an Bilbon, Euskaltzaindiak, Sabino Arana Fundazioak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak. Euskarak euskal herritarren erakunde-bizitzan izan duen erabileraz gogoeta egiteaz gain, *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919). Gipuzkoa (1918-1923)* liburua aurkeztu eta itzultzaileen lana aldarrikatzeko baliatu dute unea.

Andres Urrutiak -argitaratzaile lana egin du-, Markel Olano eta Unai Rementeria Gipuzkoako eta Bizkaiko ahaldun nagusiek eta Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko presidentek aurkeztu dute liburua. Lanak, besteak beste, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien ekimenez, 1917. eta 1923. urteen artean euskarak izandako bultzada jasotzen du. Bultzada hori bertan behera geratu zen Gerra Zibilak eta Francoren diktadurak iraun bitartean. Argitalpena lantzeko, Andres Urrutiak Cesar Gallastegi Aranzabal eta Arantza Etxebarria Iturrateren laguntza izan du.



Juan Mari Atutxa, Unai Rementeria, Markel Olano eta Andres Urrutia.

II.7. Jose Antonio Loidiren mendeurrena

Irungo Udalak eta Euskaltzaindiak Jose Antonio Loidi omendu dute bere jaiotzaren mendeurrenean. Ogibidez farmazialaria bazen ere, Loidik hainbat euskal aldizkaritan artikuluak idatzi zituen, bai osasun eta farmaziaren arloan, baina, baita ere, bere biziko zaletasuna izan zen literatura alorrean ere. Literaturgintzan, batik bat, eleberri poliziakoetan espezializatu zen. Berak idatzia da *Hamabost egun Urgainen*, lehen euskal eleberri poliziakoa kontsideratua izan dena.

Jardunaldiari hasiera eman diote Jose Antonio Santano Irungo alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Jarraian, Luis de Urantzuko kidea den Iñaki Garridok Loidiren bizitzari buruz zertzelada batzuk eman ditu eta, halaber, Irungo herriari egindako ekarpenaren berri eman du. Horren ondoren, eleberri poliziakoetan adituak diren Miel Elustondo eta Jabier Cillerok genero horretan Loidik egindako ekarpena zein izan den azaldu dute. Azkenik, Literatura Ikerketa batzordeko burua den Ana Toledok ekitaldia bukatzeko agur-hitzak eskaini ditu.

II.8. Euskaltzaindiak bost hitzaldi antolatuko ditu Ondareari buruzko Europako Jardunaldien 16. edizioan

Bilbon antolatu dira mintzaldiak, Plaza Barriko egoitzan, urriaren 18, 20, 21, 25 eta 27an. Bizkaiko kultur ondarea zabaltzeko 300 jarduera inguru eskaini ditu urrian zehar gauzatu den egitasmoak.

Euskaltzaindiak zuzenean parte hartu du Ondareari buruzko Europako Jardunaldien 16. edizioan. Guztira 63 udal, 17 elkarte eta erakunde ofizial, 17 museo eta 50 kultur elkarte inguruk parte hartu dute aldi berriaren antolaketan eta, urtero legez, Bizkaiko Foru Aldundia izan da koordinatzailea.

Gainera, aurten estreinakoz mugak gainditzen dituzten jarduerak antolatu dira. Honela, Bizkaiak eta Islandiak bat egin dute iraganean elkarrekin partekatutako esperientzia bat erakusteko: XVII. mendean, euskaldunon eta Islandiako ipar-mendebaldeko biztanleen arteko harremanak, hain zuzen ere.

Zentzu honetan, Euskaltzaindiak 'Euskararen aztarnak Islandian' hitzaldia

eskaini du, urriaren 18an. Gidor Bilbao izan da hizlaria eta XVII. eta XVIII. mendeetan bi komunitateen artean garatu zen hizkuntza erraztu bati buruz aritu da, euskara-islandiera *pidgina* delakoaz, hain zuzen. Hizkuntza edo *pidgin* horrek 745 hitz dauzka, eta euskara, islandiera, frantses eta ingelesezko 745 hitz gordetzen ditu. Hitzaldian *pidgin* hizkuntzaz idatzitako testuak aztertu dira eta euskal osagaiak beste hizkuntza batzuetatik eratorritako hitzetatik bereizten ahalegindu da hizlaria.

Horrezaz gain, beste lau hitzaldi egin dira Akademiak Bilbon duen egoitzan: urriaren 20an, 'Etxetik kanpokoek leku-izenetan ezkutatu zizkiguten altxorrak' (Felix Mugurutza); urriaren 21ean, 'Barne emigrazioa mendebaldera, deiturretan' (Mikel Gorrotxategi); urriaren 25ean, 'Euskaldun bi Amerikan: Daniel Lizarralde eta Florentzio Basaldua' (Kepa Altonaga); eta urriaren 27an, 'Urruneko mendebalean artzain: urrunekoa eta artzaintza baino askoz gehiago' (Amaia Jauregizar).



Amaia Jauregizar Ondare jardunaldietan.

II.9. XXI. Jagon jardunaldia: "Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrera eta euskararen etorkizuna"

Azaroaren 19an Baionako Euskal Museoa antolatu den Jagon jardunaldian, erakunde berriak ondorengo urteetan gainditu beharreko erronkak aztertu dira. 'Euskal Elkargoaren sorrera eta euskararen geroa' lemapean egin da aipatu mintegia.

Jende ugari hurbildu da goizeko zein arratsalde parteko hitzaldietara, Euskal Museoko gela nagusia euskaltzalez gainezka agertu delarik une oro.



Sagrario Aleman Jagon jardunaldiaren aurkezpena eginen.

ERAKUSKETAK

II.10. Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasari (EHHA) buruzko erakusketa Bilbon.

Euskararen euskalki eta hizkera desberdinak ezagutzera ematea xede duen “Euskara ibiltaria” erakusketa zabalik izan da, maiatzaren 3tik 27ra bitartean, Bilboko Zabalgune eraikinean.

Erakusketak Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasari (EHHA) egitasmoa izan du oinarri, eta Euskaltzaindiak, Bilboko Udalak eta Laboral Kutxak antolatu dute. Ekitaldi berean *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* VII. liburukia aurkeztu du Euskaltzaindiak.

Aurkezpen ekitaldian, erakusketa antolatu duten hiru erakundeotako ordezkariak parte hartu dute: Bilboko Udalaren izenean, Juan Mari Aburto alkateak; Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak; eta Laboral Kutxarenean, Julio Gallastegi zuzendari nagusiak. Eurekin batera, Patxi Baztarrika Eusko Jaur-laritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Ana de Castro, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria ere bertan izan dira. Dorleta Alberdi euskaltzain urgazle eta kazetariak aurkezpen lanak egin ditu.

Bestalde, hainbat hedabide erakusketaren babesle diren heinean, horien ordezkariak ere ekitaldian izan dira: *Berria*, Bizkaia Irratia, *Deia*, EITB, *El Correo*, *Gara*, Onda Vasca eta SER (Radio Bilbao) dira komunikabide horiek.

ARGITALPENAK

II.11. Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos liburuaren aurkezpena

Urtarrilaren 21ean, *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos* liburuak aurkeztu da Gasteizen, Arabako Foru Aldundian. Liburuak Arabako toponimia nagusia aztertzen du eta Euskaltzaindiaren *Izenak* bildumaren barruan argitaratu da, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Egilea Patxi

Salaberri Zaratiegi euskaltzain eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko burua da.

Salaberriekin batera, Igone Martinez de Luna Arabako Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak aurkeztu dute liburuak.



Andres Urrutia, Patxi Salaberri Zaratiegi eta Igone Martinez de Luna.

II.12. Toponimia de Vitoria V: Arratzua I liburuaren aurkezpena

Martxoaren 10ean, *Gasteizko Toponimia V, Arratzua I / Toponimia de Vitoria V, Arratzua I* argitalpena aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak, Gasteizen, Montehermoso / Oihaneder Euskararen Etxean. Egilea Elena Martinez de Madina ikertzaile eta euskaltzain urgazlea da.

Aurkezpenean, egilearekin batera izan dira; Patxi Salaberri Zaratiegi, euskaltzain oso eta egitasmoaren zuzendaria; Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea; eta Andres Urrutia euskaltzainburua. Gasteizko Toponimia egitasmoaren babeslea Gasteizko Udala izan da, hasieratik bertatik.

II.13. Matematikaren, Fisikaren eta Astronomiaren arloetako oinarrizko lexikoen aurkezpena

Euskaltzaindiak osatu dituen hiru lexiko teknikoak sarean jarri eta Donostiako Luis Villasante Ikerlanean aurkeztu ditu, hainbat irakasle eta argitaldari bertan direla, martxoaren 17an. Matematikaren, Fisikaren eta Astronomiaren arloetako oinarrizko lexikoak Euskaltzaindiko webgurutik deskarga daitezke, PDF formatuan.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Andoni Sagarna Akademiako Hiztegiaren arloko arduradunak, Inaki Irazabalbeitia Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko egitasmoaren idazkariak eta Antton Gurrutxaga egitasmoaren kideak azaldu dutenez, hogeita hamar urte baino gehiago iragan dira euskara arlo teknikoetan erabiltzen hasi zenetik eta orduan hona begi-bistakoa da hizkuntzak izan duen garapena.

II.14. Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa

Euskaltzaindiak Hego Euskal Herriko administrazio guztien adostasuna lortu du oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioaren proiektua gauzatzeko.

Hiztegi juridiko-parlamentarioak 1.400 hitzetik gora izango ditu eta argitalpena baliabide informatikoen bidez egingo da. Hiztegiaren ahaleginak Hego Euskal Herriko bost administrazioak batu ditu: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Parlamentua, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko batzar nagusiak.

II.15. Euskaltzaindiaren Hiztegia

Hiztegiaren paperezko bertsioa salgai dago, eta Euskaltzaindiaren webgunean kontsultatzeko moduan ere bai (www.euskaltzaindia.eus). Kontsultak era arrunten edo aurreratuen egin daitezke.



Andres Urrutia, Leire Aragon, Andoni Sagarna eta Miriam Urkia Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin.

Argitalpen hau Bilbao Bizkaia Kutzaren babesarekin egin da, 37.884 sarrerarekin eta 6.944 azpisarrerarekin; beraz, 44.828 forma eta 61.398 definizio (lehenengo edizioak 20.000 sarrerarekin zeuzkan).

Hiztegiaren on-line baliabideetatik irten gabe, Euskaltzaindiaren beste errekurtso lexikografiko batzuk ere kontsulta daitezke: Hiztegi Batu Oinarritua, Orotariko Euskal Hiztegia, XX. mendeko corpusa eta Lexikoaren Behatokia.

II.16. Erlea 10

Aldizkariaren 10. zenbakia aurkeztu du azaroan Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan. Zenbaki berriak euskal antzerkia “barru-barrutik” ezagutzeko aukera ematen du, Bernardo Atxaga *Erlearen* zuzendariak agerpenean esan duen legez. Zenbaki berriari parte hartu dutenen artean daude Patxo Telleria, Agus Perez, Aizpea Goenaga, Ander Lipus, Iñake Irastorza, Mikel Martinez, Jokin Oregi, Iñaki Rikarte edo Anjel Alkain, besteak beste.



Mikel Martinez, Bernardo Atxaga, Inun eta Patxo Telleria.

II.17. Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II

Liburu honetan Juan Manuel Etxebarria egileak hizkuntza eta etnografia bateratu ditu. Hogeita hiru herritako ehunetik gora berriemailek emandako informazioarekin 450 ipuin eta esaunda bildu ditu.

Lana Deustuko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren elkarlanaren bitartez argitaratu da. Aurkezpenak Deustuko Unibertsitatean, azaroaren 14an, eta Zeberio Udaletxean, azaroaren 17an, izan dira.



Zeberio Udaletxean egin zen aurkezpena.

BESTE JARDUERA BATZUK

II.18. Lauro Ikastolak 50 urte

Otsailaren 26an, Euskaltzaindiak Osoko bilkura egin du Lauro Ikastolan. Ekimena ikastolaren 50. urteurrenaren ospakizun ekitaldien barnean kokatu da: 1966. urtean Azkue Ikastola, Lauoren aurrekaria, legezkatua izan zen eta Akademiak behar zuen babesa eman zion.

Ospakizunei hasiera emanez, otsailaren 23an ikastolaren sortzaileak omendu dituzte, Bilboko Arte Ederren Museoa eginiko ekitaldian. Ondoren, Bilboko Elkano kalean 1966. urtean ikastola kokatu zen etxeko atarian, Euskaltzaindiak eta Lauro Ikastolak sinatutako plaka bistaratu dute. Urte horretan legezkatu zen Lauro Ikastola, orduan Resurreccion Maria Azkue izena zuena. "Izan zirelako gara, garelako izango dira" esaldia behin eta berriz entzun da omenaldian. Horrela dio omenduei eman zitzaizen oroigarriak eta horrela jaso da ere oroimenezko plakan.

II.19. Aurreneko aldiz, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egin du Osoko bilkura

Bere historian lehenengo aldiz, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan egin du Osoko bilkura Euskaltzaindiak. Irailaren 30ean izan da bilera, Parlamentuko 2. batzorde gelan; egun berean, harrera ofiziala egin dio Akademiari Parlamentuko mahaiak.

Aspaldikoa da Akademiak Nafarroako Parlamentuarekin duen hartu-eman, azken urteotan areagotu egin dena. Horren adibide garbia da iazko urtarrilean sinatutako lankidetzaz hitzarmena (besteak beste, parlamentu-lexikoaren bateratze-lana egiteko baliagarria izan dena). Hartu-eman sendo eta iraunkor horretan, beste pauso garrantzitsu bat da 30eko bilkura.

Apirilean, Iruñeko Udalak hartu du Osoko bilkura, baina orain arte ez zen horrelakorik gertatu Nafarroako Parlamentuan.



Euskaltzain osoak eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak.

II.20. Euskaltzaindiak Lodosako ikastola bisitatu du irailaren 23an

Goizean, Lodosako eta Sartagudako alkateek harrera egingo diete Akademiako buru eta kideei eta ondoren, Lodosako Udaletxean egingo du Euskaltzaindiak zuzendaritza batzarra, bisita azkenerako utziz.

Urriaren 16an egin den *Nafarroa Oinez*en edizio berria dela eta, Lodosako ikastola bisitatu du Euskaltzaindiak ostiralean, irailak 23 dituela. Aurretik, Lodosako eta Sartagudako alkateek harrera egin diete euskaltzainburuari, Nafarroako euskaltzainei eta zuzendaritza batzordeko kideei, Lodosako Udaletxean bertan. Akademiak zuzendaritza batzarra egin du udaletxean, eta, horren ostean, Lodosako ikastola bisitatu dute, zuzendariak lagunduta.

Lodosan eta Vianan (Nafarroa) egin da aurtengo *Nafarroa Oinez*. Gainera, historikoa da aurtengo aldi hau, lehenengo aldiz bi ikastolen elkarlanari esker egin delako: Vianako Erentzun eta Lodosako Ibaialde ikastolenei esker.

II.21. Xalbador eguna

Urtero bezala, Nafarroa Behereko Urepelen, Fernando Aire “Xalbador” bertsolariaren jaioterrian, berau omentzeko jaialdia ospatu da. Bertsolari handiaren oroitzua egitearekin batera, Emile Larre euskaltzain osoa eta Teodoro Hernandorena politikari eta sustatzaile kulturala ere omenduak izan dira.

Jardunaldia Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatu dute urriaren 22 eta 23an.

II.22. Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa garatzeko jardunaldia antolatuko dute elkarrekin

Apirilaren 11n, ikerkuntza bultzatzea xede, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lehen mintegia egin da, Akademiaren egoitzan. Ekimena EHUko Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programako doktoregaiei eta izen bereko masterreko ikasleei zuzendu zaie.

Mintegi hori EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterreko eta doktorego programako ikasleek beren praktikak eta ikerketak Euskaltzaindian egin ditzaten lehenengo pausoa izan da. Izan ere, 2015eko urrian bi erakundeok lankidetzeta-hitzarmen berria sinatu zuten. Hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterreko eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten bere zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkariartan.

Hala bada, jardunaldian Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburuak eta Pruden Gartzia Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariak hitzaldi bana eman diete ikasleei eta Akademiaren Iker egitasmoen zein funts bibliografiko eta artxibistikoaren nondik norakoak azaldu dizkiete.



Euskaltzaindiko Zuzendaritzako kideak Lodosako Ikastolako haurrekin.




Emile Larre eta Teodoro Hernandorenaren sendia, ondoan, Jose Mari Iriondo dutela.

II.23. Liburu azokak

Sara

Martxoaren 28an, Ipar Euskal Herriko idazleek urtero egiten duten biltzarrean, Euskaltzaindiak *Euskal Literaturaren Antologia I: Erdi Arotik Errenazimentura* liburua aurkeztu du.

Lana Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak egin du Karlos Otegiren koordinaziopean. Aurkezpen ekitaldian Karlos Otegi bera mintzatu da eta berarekin batera izan dira Jon Casenave Literatura Ikerketa batzordeko kidea, Mathieu Bergé Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea, eta Andres Urrutia euskaltzainburua.



Andres Urrutia, Jon Casenave eta Mathieu Bergé.

Bilbo

Euskaltzaindiak saltokia izan du Bilbo Liburu Azokan, ekainaren 2tik 12ra. Andres Urrutia euskaltzainburuari Urrezko Luma saria eman diote bere literatura lanengatik, bereziki Blas de Otero olerki bilbotarraren obrak euskarara itzultzean egindako lanagatik.

Durango

Abenduaren 2tik 6ra, Euskaltzaindiak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartu du. Azokak aurten 51. edizioa bete du eta jakina denez, euskal kulturarentzako ezinbesteko zita da. Beste hainbat argitalpenekin batera Euskaltzaindiak bere azken lanak izan ditu salgai, horien artean, *Erlea* aldizkari literarioaren azken zenbakia eta Juan Manuel Etxebarria irakasleak idatzitako *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Juan Manuel bera Akademiaren saltokian izan da aleak sinatzen eta eman beharreko azalpenak ematen.



Durangoko Azokan, “Ortzadar Saria” eman zioten Sagarrio Alemani.

III. BESTELAKOAK

HERIOTZAK

2016an, otsailaren 23an, Patrick Farrell euskaltzain urgazlea hil da.

Euskaltzainak zenbakitan:

Euskaltzainak	2015-12-31	2016-12-31
Osoak	24	24
Emerituak	4	4
Ohorezkoak	34	34
Urgazleak	141	146
GUZTIRA	203	208

Euskaltzaindiaren akademia jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Aurrez esan bezala, Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Bi sail horien barruan, Euskaltzaindiak hainbat batzorde eta egitasmo dauka eta horien inguruan garatzen du bere jardun akademikoa. Batzorde eta egitasmo horietan, euskaltzain osoak, euskaltzain urgazleak eta hainbat esparrutako aditu eta aholkulariak hartzen dute parte.

I. LEXIKOGRAFIA

Lexikografia ikerketak behar-beharrezkoak dira Hizkuntza Akademia baten jardunean. *Orotariko Euskal Hiztegia* eguneratzen ari da. Horrekin batera, Euskaltzaindiak 2016an beste bi proiektu handietan lan egin du: *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

I.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia (Adierak eta adibideak)

Urrian *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bigarren argitaraldia kaleratu da. 37.884 sarrera, 6.994 azpisarrera eta 61.398 adieraz osatua dago.

Hiztegi hau aurrera eramateko abiapuntua *Hiztegi Batuan* onarturiko hitz-zerrendak dira.

I.2. Orotariko Euskal Hiztegia

1917 eta 1923 artean Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek argitaratuko euskarazko testuekin hiztegi bat osatu da. Testu horien adibideak *Orotariko Euskal Hiztegian* txertatu dira.

I.3. Zientzia eta Teknika hiztegia

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzkoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* txertatu ahal izateko.

2016an kimikako euskarazko terminoen zerrenda osatu da. Lurraren zientzien terminologia lantzeko eskema burutu da, horretarako aditu talde bat eratu delarik. Talde horrek oinarritzko terminoen zerrenda egin du. 2017an lurraren zientzietako terminoen zerrenda osatuko da eta biziaren zientziak lantzeko eskema landuko da.

I.4. Euskal Hiztegi Etimologikoa

Gaur egun arte euskal hitzen gainean egindako ikerketa historiko eta etimologiak oinarri hartuta, egitasmo honek euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea du helburu.

2016an hiztegirako sarrerren erredakzio-lanekin jarraitu da. Guztira 200 hitz-familia osatu dira eta horiek ardatz harturik 2.000 hitz ingururen informazio historiko eta etimologikoa jasoko da. Urte honetan egindako lanak *Euskaltzaindiaren Hiztegi Historiko-Etimologikoaren* lehen edizioaren oinarria izango dira. Hiztegi hau 2017an argitaratuko da.

I.5. Lexikoaren Behatokia

Lexikoaren Behatokia Akademia UZEI, Elhuyar eta EHUren IXA taldearekin batera burutzen ari den proiektu bat da. Lan horren helburua antolaturiko eta etiketaturiko corpusa eratzea da, lexikoaren erabilerak aztertzeko eta lexikoaren gaineko arau eta gomendioak dokumentatzeko baliagarria izango dena.

Katalogatu, prozesatu, eta Euskaltzaindiko webgunera hainbat forma igotzeko lanak egin ostean, 2016an 67 milioitik gora termino izatera heldu da. Egitasmo hau aurrera eramateko Euskaltzaindiak hainbat erakunde eta hedabideekin hitzarmenak sinatu ditu. Adibidez, Bilboko Udalarekin. Hauek guztiak Euskaltzaindiaren esku jartzen ari dira euskaraz ekoizten dituzten testu guztiak, behar bezala etiketatuak eta katalogatuak izan daitezzen.



Hiztegitza lantaldea: Andoni Sagarna, Ane Loidi, Miriam Urkia, Elixabet Kruzeta, Gabriel Fraile eta Ainhoa Otamendi.

II. GRAMATIKA

2016an, batzordeak “Euskararen Gramatika” egitasmoan lanean jarraitu du.

Horrela gauzak, “adjektiboa”, “Morfologia: eratorpena”, “Mendeko perpaus baldintzazkoak”, “Mendeko perpaus kausazkoak” eta “Mendeko perpaus denborazkoak” kapituluak osatu dira. “Zenbatzaileak” eta “Determinatzaileak” kapituluaren bigarren erredakzioa burutu da eta kapitulu berri batzuk idazten hasi dira: “Mendeko Perpaus kontzesiozkoak”, “Juntadura” eta “Aditza”. Horrekin batera Jagonet zerbitzutik iritsitako hainbat kontsulta erantzun dira.

III. DIALEKTOLOGIA

III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

1986an, lan-metodologia, galdetegia eta inkesta-sarea finkatu ondoren, urte bete berantago Euskaltzaindia inkestak egiten hasi zen. Guztira 145 udalerritan egin ziren, 73 Euskal Autonomia Erkidegoan, 27 Nafarroako Foru Komunitatean eta beste 45 Ipar Euskal Herrian.

2016an argitaratzeko prest utzi da *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VIII. liburukia*. Bestalde, VI. liburukiko audio-fitxategien gainean lan egin da (30.000 erantzun baino gehiago etiketatuz) eta Euskaltzaindiaren web orrian argitaratzeko moduan utzi dira.

Horretaz gain, maiatzaren 3an, Euskaltzaindiak Atlasaren zazpigarren tomoa aurkeztu du. Aurrekoetan bezala, liburuki hori argitaratzeko Laboral Kutxaren babesa izan du. Aurkeztutako liburukiak lexikoaren (sukaldea, garraioa, lur-lanketa), izen-morfologiaren eta sintaxiaren gaineko edukiak biltzen ditu. Paperezko liburukiari CD bat erantsi zaio, non eduki bera PDF formatuan kontsulta daitekeen.

Bukatzeko, maiatzean ere, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* egiten den lana zabaltzeko asmoz, Bilbon erakusketa antolatu da Laboral Kutxarekin, Bilboko Udalarekin eta hainbat hedabiderekin elkarlanean.

IV. ONOMASTIKA

IV.1. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak bere zereginen artean du izen, deitura eta toponimoen arautzea. Onomastika terminoen gainean ikertzeaz, aztertzeaz, irizpideak finkatzeaz eta aholkatzeaz arduratzen da. Izen eta abizen berrien grafia onartzeaz landa, hainbat udalerritako azterketa toponimikoak gainbegiratu eta EUDELetik, erakundeetatik edo elkarteetatik egindako kontsulta ugari erantzun ditu.

Batzordeak, halaber, herri-erakundeetatik (EAEko Eusko Jaurlaritzatik eta aldundietatik, Nafarroako Gobernutik, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikotik, udaletatik) etorri diren kontsulta eta eskariei erantzun die, eta horren arabera txostenak eta irizpenak kaleratu ditu. Horien artean aipa genitzake Makirriain eta Zumeltzu herrien izenak. Aztertu dira ere Arreo izenarekin azkenengo urteetan ezagutu den lakua izendatzeko egon diren proposamenak.

Horrekin batera Olatzagutia eta Ortuellako kale-izendegiak aztertu eta onartu dira, eta Iruñekoaren parte bat ere bai. Izendapen berri posibleei buruz aholkatu zaie Makirriaingo Kontzejuari eta Santurtzi eta Zeanuriko udalei.

EiTBren eskariari erantzun nahian, Ipar Euskal Herriko kantonamendu berria aztertu eta definitu da. Lan handiena, aldiz, Arabako lurralde-entitate guztien azterketa eta euskarazko izendapenaren proposamena izan da.

Onomastika zerbitzuaren bitartez Abaltzisketa, Amurrio, Añana, Armiñon, Elburgo, Erriberabestia, Eskoriatza, Forua, Gamiz-Fika, Getaria, Lasarte-Oria, Lemoa, Lizartza, Muxika, Okondo, Orendain, Oresa, Sestao, Villabona eta Zegamako udalei laguntza eman zaie.

IV.2. Exonomastika batzordea

Batzorde honen lana da Euskal Herritik kanpo dauden exonimo edo izenen azterketa. Bere zeregina da horien azterketa eta arautzea; halaber, aholku eta irizpenak ematea.

2016an, batzorde honen oniritziarekin, Euskaltzaindiak Antzinateko herri-izenen arauak onartu ditu: Ekialdekoak eta Europakoak (174. araua); Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia (175. araua), Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II). Antzinateko Egipto (176. araua), Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III). Bibliako pertsona-izenak (177. araua) eta, Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa (178. araua).

Bestalde, 76. (Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia) eta 82. (Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak euskaraz izendatzea) arauak zuzendu eta eguneratu dira.

IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa

Egitasmo honen helburua euskal izen propio eta tokikoen ahalik eta corpus osoena jasotzea da. Horretarako informazioa jaso eta sailkatzen duen datu-base bat eratu da.

2016an Akademiak urtean zehar onarturiko arauen edukiak txertatu dira. Horrekin batera hainbatek idatzizko lanek eskaini duten informazio onomastikoa erregistratu da. Adibidez *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Galar*, Jose Mari Jimeno Juríok idatzitako liburua eta *Cartulario real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (1454-1474)*, Jose Luis Orellak idatzitakoa. Lan bera egin da jarraian aipatzen diren artikuluekin: “Notas lingüísticas a Colección diplomática de Irache, Introducción fonética a la onomástica vasca o Estratos en la toponimia alavesa” Koldo Mitxelenarena; “Notas de toponimia alavesa: antropónimos en -a /-ana” Patxi Salaberri Zaratiegirena; “Nouvelle toponymie basque: noms des pays, vallées, communes et hameaux historiques de Labourd, Basse-Navarre et Soule, édition en-

tièremment revue et corrigée”, Jean-Baptiste Orpustanena; eta “Sustitución y alteración de topónimos en las Encartaciones de Bizkaia”, Mikel Gorrotxategirena.

Guztira 5.105 leku-izen gehitu dira datu-basera, 461 pertsona-izen eta 298 abizenekin batera.

Egitasmoa Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren artean sinaturiko hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da eta espresuki jaso dago aurtengo ekitaldiari dagokion protokoloan.

IV.4. Vitoria-Gasteizko toponimia

1996tik hona, Euskaltzaindia Gasteizko toponimiaren ikerketa-lana burutzen ari da.

2016an, egitasmoaren bosgarren tomoaren gainean lan egin eta argitaratzeko moduan utzi da: *Gasteizko Toponimia V, Arratzua I / Toponimia de Vitoria V, Arratzua I* Betoñu, Arkaia, Otazu, Gamiz, Arkauti eta Elorriaga herrietako datu-baseekin lan egin da.

Egitasmoak, hasiera-hasieratik, Vitoria-Gasteizko Udalaren babes du.

V. LITERATURA

V.1. Herri-literatura batzordea

2016an zehar batzordea eraberritu da. Euskaltzaindiak antolatu dituen hainbat ekitalditan parte hartu da eta Auspoa bildumako eta Labayruko arduradunekin egindako elkarlanean sakondu da.

Horrekin batera, batzordeak Xalbador Egunaren antolaketan parte hartu du.

V.2. Literatura-ikerketa batzordea

Batzorde honek Euskal Literaturaren Antologiaren lehen tomoa argitaratu, aurkeztu eta zabaldu du. Lehengo liburuki horren izenburua da *Erdi Arotik Errenazimentura*. Jakina, batzordeak antologia horretan lanean jarraitzen du eta jada bigarren tomoa prestatzen ari da.

Bestalde, ekainaren 17an, Irungo Udalarekin batera Jose Antonio Loidi idazlearen omenaldia antolatu du, idazlearen jaiotzaren mendeurrenaren karietara. Jardunaldi horretan parte hartu dute Iñaki Garrido historialariak, Miel Elustondo kazetariak eta Javi Cillero ikertzaileak. Horien txostenak *Eus-ker*a agerkarian argitaratuko dira.

Esan behar da, halaber, batzordeak hainbat literatura sariketarako epai-leak proposatzen dituela, bai Espainiako Sari Nazionaletarako, bai haur eta gazteentzako Azkue sarietarako.

VI. AHOSKERA

VI.1. Ahoskera batzordea

2016ko lehenengo hilabeteetan, ahoskerari buruzko 2015eko urriko jardunaldian aurkeztutako txostena argitaratzeari ekin zaio. Horrekin batera, jardunaldi hartatik atera ziren ondorioak eztabaidatu dira, aurrera begira egin beharreko lana definitzen joateko eta arlo praktiko zein teorikoan hobetsi beharreko lehentasunak egituratzeko. Bestalde, Akademiaren beste batzorde batzuk antolaturiko ekitaldietan parte hartu da etorkizunerako sinergiak bilatu nahian. Hiztegiaren arduradunekin elkarlanerako aukera posibleei buruz hitz egin da.

Argi izanda ahoskerak bere baitan duen pedagogiarako zailtasuna, ikastaroak eta jardunaldiak antolatzeko asmoz, irakasleekin eta antzerki saioen arduradunekin kontaktuak izan dira.

VII. JAGON SAILA

VII.1. Corpus batzordea

Euskararen Corpora zaintzeaz arduratzen da, zeregin nagusia hizkuntzaren kalitateaz arduratzea duela. Bere barruan dago JAGONET hizkuntza-aholku-larritza zerbitzua, galde-erantzunen datu-base batez hornitua.

VII.2. Euskalkien lantaldea

Lantalde honek “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoan lan egin du. Lan horiek emaitza modura *Labayru Hiztegiaren* hitzen zerrenden azterketarekin jarraitu da.

K eta L bitarteko 273 sarrera prestatu eta aztertu dira, beraietatik, 138 *Euskaltzaindiaren Hiztegi*rako proposatuak izan dira eta 4 Euskalkien Hiztegi-rako.

VII.3. Sustapen batzordea

Hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

Aurten argitaratzeko bildu dira, 2015eko azaroan, XX. Sustapen jardunaldian (“Hedabideak euskararen sustapenean”) irakurri ziren txostenak. *Euskera* agerkarian argitaratu dira eta azaroan Bilbon aurkeztu.

Bestalde, 2016ko azaroan XXI. Jagon jardunaldia egin da Baionan. Aurten, jakinda 2017ko urtarrilean Ipar Euskal Herriko udalerrri guztiak bilduko dituen Euskal Elkargoa indarrean izango dela, Iparraldeak euskarari bizi duen egoera aztertu nahi izan da. Jardunaldia Euskaltzaindiko Jagon sailburuak, Jean-Baptiste Coyosek, eta Euskal Konfederazioko Maider Hegik emandako diskurtso banarekin hasi da. Jarraian Kontseiluko Argitxu Etxandik hitzaldi bat eman du, “Legezko koadroa eta aukerak”, eta, ondoren, datorren ziklo berria aztertzeke mahai-ingurua izan da.



XXI. Jagon jardunaldia Baionan.

Jardunaldia bukatzeko, Maider Hegik eta Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkaria den Xarles Videgainek adierazpen bat irakurri dute, non euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera larriaren berri eman den.

VII.4. Joanes Etxeberri Egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Euskararen Historia Soziala (EHS) Euskaltzaindiaren egitasmo bat da. Bere ikerketa-esparrua giza dimentsioa da, aldi historiko eta herrialdearen gune jakin batzuetan islatuta, euskararekin harremanetan jarrita aztertzea, eta ondoren gurearekin ukipenean izan diren beste zenbait hizkuntzekin. Beraz, diziplinarteko jardura da, Hizkuntzaren Soziologiaren, Hizkuntzalaritzaren, eta, jakina, Historiaren oinarritzko elementuak konbinatzen dituen.

2016an, *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* aurkeztu da. Lan horren laburpena egiten ari da hainbat hizkuntzatan argitaratzeko asmoarekin (momentuz, euskara eta ingelesa). Horretarako lana sintetizatu eta moldatu egin da, irakurleria zabalago batek, ez bereziki euskararen azterketari atxikiak, irakurtzeko parada izan dezan.

Baita ere, Donostiako hiritartasun kulturalaren urtean, 2016ko abenduan, Luis Villasante Ikergunean, Donostian ezagutu izan diren gutxienez bost hizkuntzen historia sozialaren bilakaera aztertzeko jardunaldia egin da. Bertan aurkeztutako lanekin argitalpen bat kaleratu nahi da 2017an.

Perspektiba luzeago batean, Jesus Lorenzok egindako lan bat aurkeztu nahi da, euskal aipuak arabiar iturrietan deskribatzen dituen (batez ere 714-929 urte bitartean). Horrekin batera, herrialdeko onomastikaren osaera lexiko-genesikoa azterketarekin jarraitzen dugu, batez ere ikuspegi intra-euskaldun batetik. Uste da bi lan horiek Goi Erdi Aroko hizkuntza portaeraren antolaketa soziala argitzeko argigarriak izan daitezkeela.

VII.5. Erlea aldizkaria

2016an aldizkariaren 10. zenbakia kaleratu da.



Pello Elzaburu eta Bernardo Atxaga.

VIII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VIII.1. Argitalpen batzordea

Batzorde honek Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak programatu eta antolatzen ditu. Horien artean *Euskera* aldizkaria, Akademiaren organo ofiziala, 1919tik kaleratzen dena, nahiz eta 1938-1952 eta 1954-1955 urteen artean etenak izan. Agerkari horren bitartez ezagutzera eman ditu Euskaltzaindiak historikoki bere lanak.

2016an agerkariaren bi zenbaki aurkeztu dira, horietako bat, bizitza akademikoaren berri ematera bideratua, eta, bestea, arloko ikerketa-lanak biltzen dituen.

Batzordearen zuzendaritzapean, Argitalpen zerbitzuak argitalpenen egunerokoak kudeatzen ditu. 2016an argitaratu diren lanen berri Argitalpen Zerbitzuaren atalean ematen da.

VIII.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa

Urte honetan, liburuzain akademikoaren gaixotasuna dela eta, batzordea ezin izan da bildu. Hala ere, liburuzainak Biblioteka eta Artxiboaren lanak gainbegiratzen jarraitu du eta zerbitzuko zuzendariarekin elkarlanean kudeatu dira arloko gaiak.

Biblioteka eta Artxiboaren zeregin nagusiak, aurrerago, zerbitzuaren errendapenean zerrendatzen dira. Aipagarria da Euskaltzaindiak HABEko eta EHUko liburutegiekin sinatutako hitzarmenen edukien garapen lana.

Lan sakonena 2015an onartu ziren artxibo- eta bibliografia-ondareen kudeaketa izan da: Jean Elizalde “Zerbitzari”ren (1883-1961) artxibo pertsonala, M. Michaud bere ilobaren jabeagokoa; Nikolas Altzola “Bitaño”ren (1923-1982) artxibo pertsonala, Irungo salestarren jabeagokoa; Eugenio Arotzenak bildutako euskal antzerkiari buruzko fondoa, bere aurreko jabeak, Oiartzungo Udalak, Euskaltzaindiari dohaintzan emanda.

VIII.3. IKT batzordea

2007ko XV. Barne jardunaldietan ezarri ziren IKT batzordearen xede nagusiak:

1. Euskaltzaindiaren edukiak erabiltzea eta gizarteratzea
2. Testu-corpusak elikatu, egituratu, bateragarri bihurtu eta gizarteratzea

2013ko XVIII. Barne Jardunaldietan, Euskaltzaindiaren lana zerbitzuen bidez are ikusgarriagoa egitea erabaki zen, horretarako, eta Informatika arloari dagokionez, Akademiak IKT batzordea indartzeko konpromisoa hartu zuen, erakundeak dituen behar guztiei erantzun egokia (kalitatea, epeak, erantzuna, etab.) emanaz. Ondorengo erronkei erantzun egokia ematea lehenetsi da:

- a) Webgunea etengabe berritzea, erakargarriagoa eta erabilerrazagoa egitea.
- b) Edukien hautaketa eta eguneratze prozesua.
- c) Digitalizazio lanak.

IX. R. M. AZKUE LITERATURA SARIAK

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioak Literatura sari hauek antolatzen dituzte, haur eta gazteei zuzenduak doazenak. Bi kategoriatan banatuak daude: A kategoria, 11 eta 14 urte bitarteko ikasleentzako; eta B kategoria, 15 eta 18 urte bitartekoentzako. Kategoria bakoitzean bi literatur genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia.

Aurten 175 lan aurkeztu dira, iaz aurkeztutakoen bikoitza. Azkenengo lau urteetan lan gutxiago aurkeztu badira ere, 2016an joera zeharo aldatu da, duela sei-zazpi urteko kopurura iritsi delarik.

2016ko irabazleak honako hauek izan dira:

Saria	Lan saritua	Egilea	Ikastegia
A: narrazioa 11 – 14 urte	1) <i>Paradisuan bihotza erdibituia</i> 2) <i>Slamina</i> 3) <i>Klabe ezkutua</i>	Lohizune Telletxea Mahalia Resampa Olatz Senar	Hurtzaro Ikastola (Oiartzun) Piarres Larzabal kolegioa (Ziburu) Txingudi Ikastola (Irun)
A: poesia 11 – 14 urte	1) <i>Zure beharra</i> 2) <i>Itsasoa</i> 3) <i>Dirudienez</i> 4) <i>Aipamena: Muxu gaziak</i>	Izar Arronategi Libe Gargallo Asier Morillo Elene Etxaniz	Seber Altube Ikastola (Gernika) Hurtzaro Ikastola (Oiartzun) Urola Ikastola (Azpeitia) Zubi zahar ikastola (Ondarroa)
B: narrazioa 15 – 18 urte	1) <i>Lubiankan</i> 2) <i>Zu gabe</i> 3) <i>Bide zuzenetik oker</i>	Peru Amorrortu Maddi Aiestaran Idoia Granizo	Ekialde BHI (Gasteiz) Beasain BHI (Beasain) Altsasuko BHI (Altsasu)
B: poesia 15 – 18 urte	1) <i>Ezin izan nuen loratu</i> 2) <i>Nahi nuke, behar nuke</i> 3) <i>Itsasoak sutu daitezke</i>	Lide Mikele Billebeitia Anne Arrizabalaga Idoia Granizo	Mungiako BHI (Mungia) Hurtzaro Ikastola (Oiartzun) Altsasuko BHI (Altsasu)

Epaimahaia honako idazle hauek osatu dute:

- A kategoria: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manuel López Gaseni.

- B kategoria: Yolanda Arrieta, Amaia Jaurregizar eta Patxi Zubizarreta.

Bestalde, *Narrazioak eta olerkiak 2015* liburua argitaratu da, aurreko urteko edizioan sarituak izan ziren lanak biltzen dituena. Sari-tuak izan ziren: Edurne Bastida, Naia Aiestaran, Elene Etxaniz, Naroa Muñoz, June Manjarrés, Olaia Gerendiain, Maddi Aiestaran, Zuriñe Ruiz, Idoia Granizo, Irene Nogueira eta Saioa Ventura.



2016ko Azkue literatura sariketako irabazleak epaimahaikide eta Euskaltzaindiaren ordezkariekin.

Euskaltzaindiaren jardura akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu horiek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpena eta Banaketa, Komunikazioa eta Irudia, eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet zerbitzua Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuaren barruan dago eta Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburu-tan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek egoitzatik eta ordezkarietatik bideratzen dira.

Osoko bilkurak hilean behin egiten dira Bilbon, Donostian edota, erakundeari hala eskatzen zaionean, Euskal Herriko beste herri batzuetan. Zuzendaritzako bilerak hilean bitan egiten dira, bideo-hitzaldiz.

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan horien guztien berri ematen dio Zuzendaritzari eta baita, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei ere, behar diren txostenak prestatuz. Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

Hiru atal nagusitan dago banatua:

Artxiboa

Erakundearen artxiboari dagokionez, lanak bi zutabetan oinarritzen dira: alde batetik, erakunde barruko artxibo-funtsen jasotze eta sailkapen sistema berria abian jartzea; eta bestalde, 1970-2004 bitarteko artxibo-funtsen katalogazioa. Azken prozesu horretan bi norabidetan lan egin da: Osoko bilkurei dagokien funtsen katalogazioa (bukatua jada) eta Zuzendaritzaren funtsei dagokiena (egiten ari da).

Bestalde, dohaintza eta antzeko bideen bitartez eskuraturiko funtsen ikuspegitik (osoak edo partzialak), Jean Elizalde (bukatua), Nikolas Alzola (bukatua), Eugenio Arotzena (bukatu gabe) eta Piarres Lafitteren artxibo- eta bibliografia-funtsen (bukatu gabe) sailkatzean, katalogazioan eta digitalizazioan lan egin da.

Biblioteka

Harpidetzearako eta argitalpenak eskuratzeko aurrekontu ezaren ondorioz, gutxieneko lanak egin dira: 375 item digitalizatu dira -dohaintzak eta aldizkarien funts analitikoak-. Horrekin batera, Bibliotekaren Katalogoa Absysnet sistemara migratu da. Migrazioa arrakastatsua izan bada ere, uste baino lan gehiago eman du.

Dokumentazio eta Harrera

Hildako euskaltzainen fitxa bio-bibliografikoak egiten jarraitzeko baliabiderik izan ez bada ere, sistemaren ezaugarri nagusiak mantentzera bideratu dira lanak: Euskaltzaindiko kideen gaineko dokumentazioaren bilketa sistematikoa, eta erakundearekin zerikusia duten argazki-funtsen sisteman mantentze eta katalogazio lanak egiten jarraitzea, urteko lehen sei hilabeteko aldiari dagokionez (67 karpeta, 1.248 argazki).

Horrekin batera, Bibliotekara hurbildu diren 259 laguni arreta-zerbitzua eskaini zaie eta 761 kontsulta erantzun dira.

II. Onomastika zerbitzua

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galderak, eta batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute -jaioberriak erregistratzeko, adibidez- eta beste batzuek ikerketa luzeagoa.

2016an, 51 pertsona etorri dira egoitzara kontsultak egitera, gehienbat pertsona-izenen (26), deituren (18) eta leku-izenen (7) inguruan. Bestalde, 400 telefono dei baino gehiago jaso dira, bai partikularrek eginda, bai eta erregistroek ere. Posta elektronikoz, aldiz, 600 kontsultatik gora bideratu dira.

Lekuek eta deiturek sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere, pertsona izenak dira interesa handien sortzen dutenak. Hala, 796 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, bai partikularrek eginda, baita bake-epaitegiek edo erregistroek ere.

EUDELein indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei Onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. 2016. urtean honako udalekin egin da lan: Abaltzisketa, Amurrio, Añana, Armiñon, Elburgo, Erriberabeitia, Eskoriatza, Forua, Gamiz-Fika, Getaria, Lasarte-Oria, Lemoa, Lizartza, Muxika, Okondo, Orendain, Oresa, Sestao, Villabona eta Zegama.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek eta hainbat udalek egindako kontsultak erantzun dira.

Zerbitzu honetatik Onomastika eta Exonomastika batzordeko bestelako lanak ere egin dira.

Azkenik, Zerbitzuko arduradunak irratsaio bat egin du Bizkaia Irratian, Bizkaiko toponimiaz. Halaber, Europako Ondarearen jardunaldian parte hartu du eta “Barne emigrazioa, mendebaldera, deituretan” izenburuko hitzaldua eman du.

III. Argitalpen zerbitzua

Jarraiko argitarabidea gauzatu du Euskaltzaindiak 2016. urtean:

1. *Euskera* 2015, 1. Egileak: Batzuk
2. *Euskera* 2015, 2. Egileak: Batzuk
3. *Erlea* 10. Egilea: Euskaltzaindia
4. *Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta adibideak*. Egilea: Hiztegitzintza lantaldea
5. *Amiküze eskualdeko (h)eskuara*. Egilea: Iñaki Camino
6. *Sestaoko toponimia*. Egilea: Jorge Luis Tejedor
7. *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Egilea: Juan Manuel Etxebarria
8. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas VII*. Egilea: Dialektologia lantaldea
9. *Ignacio Omaechevarria: Euskara barrutik*. Paratzailea: Paulo Agirrebaltzategi
10. *Narrazioak eta olerkiak, 2015*. Egileak: Batzuk





Euskaltzaindiaren Hiztegia 2016 bi liburukitan.

la argitalpen guztien salmenta Akademiak egiten du. Ale gehienak bantzaileen bidez saltzen dira; eta gutxiago, azoka, liburu-denda eta zuzeneko eskarien bidez.

Euskaltzaindiaren argitalpen gehienak bere web orrian (www.euskaltzaindia.eus) kontsulta daitezke.

2016ko argitalpen salduenak izan dira: *Araba / Álava. Los nombres de nuestro pueblos* eta *Euskal Literaturaren Antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentera*

Argitalpen horietaz gain, aurreko urteetan kaleraturiko zenbait lanen bertsio digitalak webgunean txertatu dira:

1. *Euskera* 2014,1. Egileak: Batzuk
2. *Euskera* 2014,2. Egileak: Batzuk
3. *Euskal Herriko ibaiak*. Koordinatzaileak: Andres Iñigo eta Patxi Galé
4. *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 á 1942*. Egilea: Natalia Zaïka
5. *Bahnar deitu Salbaiak*. Prestatzailea: Henri Duhau
6. *Mongongo Dassanza: Albaitaritzako idazlanak*. Prestatzailea: Txomin Peillen
7. *Toponimia de Vitoria/Gasteiz V: Arratzua I*. Egilea: Elena Martínez de Madina
8. *Narrazioak eta olerkiak 2014*. Egilea: Batzuk
9. *Araba/Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Egilea: Patxi Salaberri Zaratiegi



IV. Informatika eta Telekomunikazioa zerbitzua

Euskaltzaindiko sistema informatikoak eta telekomunikaziozkoak mantentzea da IKT zerbitzuaren helburu nagusia. Hortaz gain, sistema hauek etengabe hobetzeko berrikuntza proiektuak ere bideratu eta koordinatzen ditu, IKT batzordearen agindupean, berrikuntza teknologikoaren arloko Euskaltzaindiko proiektuen zuzendaritza teknikoa bere gain hartuz.

2016an egin diren lanak honako hauek dira:

- Euskaltzaindiaren Hiztegirako bilatzaile berria garatu eta webgunean jartzea.

- Webguneko Euskal Onomastikaren Datutegian, deituren inguruko irizpenak webguneratzeko prestalanak eta bestelako hobekuntzak egitea.

- Webguneko Euskal Onomastikaren Datutegian, geoposizio-baliabideak gehitzeko prestalanak burutzea.

- Webguneko edukiak eguneratzeko eta argitalpenen prestaketarako lanak: Euskal Onomastikaren Datutegiko datu-kargak; Hiztegi Batuaren datu-baseko entregan oinarritua, webguneko edukiak eguneratzea; Orotariko Euskal Hiztegiaren eduki berriak webguneratzera; EHHaren VIII. liburukiko esportazioa, argitalpen prozesurako; JAGONET galde-erantzunen datu-basea eguneratzea, etab.

Bestalde, sistema informatikoak mantentzea dagokio zerbitzu honi.

V. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta, era berean, Akademiak beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Horretarako, zeregin hauetan saiatzen da Komunikazioa eta Irudia zerbitzua: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzen; horrez gain, euskaltzainen curriculumak egin eta eguneratzen dira, webguneko bestelako atal batzuk gaurkotzearekin batera; *Plazaberri* bloga ere kudeatzen du zerbitzu honek, eta, gainera, sare sozialetan Akademiak dituen plataformak zaindu eta elikatzen ditu, egunero; azkenik, Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien eta bideoen ardura ere zerbitzu honi dagokio.

VI. Jagonet zerbitzua

JAGONET Euskaltzaindiaren kontsulta- eta aholku-zerbitzua da. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuaren barruan dago.

JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren webgunean JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaioke bere zalantza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da eta pribatua galdegilearekiko.

Euskaltzaindiak hainbat herri-erakunde, instituzio, hedabide eta elkarteekin lankidetzak hitzarmenak dauzka. Hona hemen horien zerrenda, 2016ko abenduaren 31ko datarekin:

HERRI-ERAKUNDEAK

- Eusko Jaurlaritza
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua
- Nafarroako Parlamentua
- Eusko Legebiltzarra
- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa)
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Udalak: EUDEL, Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Oiartzun.

ERAKUNDE FINANTZARIOAK

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Gipuzkoako Kutxa
- Caja Vital Kutxa Fundazioa

HEDABIDEAK

- EiTb
- Bizkaia Irratia
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- Euskalerrria Irratia

- *Berría* egunkaria
- *Argia* astekaria
- *Deia* egunkaria
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- *Herria* astekaria
- *Jakin* aldizkaria
- *Karmel* aldizkaria
- Editorial Iparragirre
- *El Correo* egunkaria

ELKARTE, INSTITUZIO ETA FUNDAZIOAK

- AEK
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Deustuko Unibertsitatea
- Eako Udala
- Elhuyar Fundazioa
- Elkar Fundazioa
- Errioxako Unibertsitatea
- Etxepare Institutua
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Euskal Kultur Erakundea

- Eusko Ikaskuntza
- Gabriel Aresti Kultura Elkartea
- HABE
- Hebreera hizkuntzaren Akademia
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE – IVAP)
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Jakin Fundazioa
- Labayru Euskal Kulturaren Erakundea
- Laneki Lanbide Heziketan euskara sustatzeko elkartea
- Langune Hizkuntza Industrien Elkartea
- Mendebalde Kultura Alkartea
- Mintzola Fundazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Olaso Dorrea Sorrerakundea
- ONCE (Espainiako Itsuen Erakundea)
- Sabino Arana Fundazioa
- Soziolinguistika Klusterra
- Topagunea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Unesco Etxea
- UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa
- Xiberoko Alkargoa

2016. urtean honako hitzarmen hauek sinatu ditu Euskaltzaindiak:

Bilboko Udala

Apirilaren 5ean, Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute. Udalaren izenean, Juan Mari Aburto alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute. Biok adierazi dutenez, Bilbon euskara bultzatzea da xede nagusia.

Andres Urrutiarekin batera, Xabier Kintana idazkaria, Adolfo Arejita Iker sailburua eta Erramun Osa idazkariordea izan dira ekitaldian. Koldo Narbaiza Bilboko Udaleko Euskara zinegotzia ere bertan izan da.

Aspalditik elkarlanean ari dira bi erakundeok, 2008an izenpetu baitzen Udalaren eta Akademiaren arteko lehenbiziko hitzarmena.

Bilboko Udalak, Euskara eta Hezkuntza Sailaren bidez, Euskaltzaindiari 15.750 euroko urteko diru-laguntza eman dio, euskal literatura-



Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea eta, Andres Urrutia, euskaltzainburua

ren zuzeneko ikaskuntza eta ikaskuntza sakona bultzatzeko, Bilbon euskaren erabilera sustatzeko, eta hizkuntzaren arloko aholkularitza ziurtatzeko.

Sinatutako hitzarmenak jasotzen duenez, Udalak eta Euskaltzaindiak euskararen arloko kultura zabaltzeko jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak edo erakusketak bultzatuko dituzte. Bestalde, Euskaltzaindiak beharrezko aholkularitza linguistikoa eskainiko die Udalaren zerbitzuei, bilbotarrei informazio egokia eman ahal izateko.

Elkarlanaren lehen emaitza laster ikusi da. Izan ere, maiatzean, Bilboko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin, Bilbon "Euskara ibiltaria" izeneko erakusketa antolatu du Euskaltzaindiak.



Xarles Videgain erakusketari buruzko argibideak ematen.

Gasteizko Udala

Maiatzaren 16an Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena berritu dute. Udalaren partetik Gorka Urtaran alkateak sinatu du, eta Euskaltzaindiaren partetik, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek zehazten dituen lan hauek burutu ditu Euskaltzaindiak 2016an:

1. Askartza, Bolibar, Urizarri Nagusia, Aberasturi, Andollu, Argandoña eta Villafranca herrietako erregistroak bildu eta fitxa berriak sortu.
2. Arratzua II datutegia sortu.
3. Askartza, Bolibar, Urizarri Nagusia, Aberasturi, Andollu, Argandoña eta Villafranca herrietako datuen analisia eta antolaketa (lehen itzulia).
4. Ahozko inkestak egingo dira Arratzua II-ko herri guztietan.
5. Aberasturi, Bolibar, Urizarri Nagusia eta Askartza herrietako deskribapenak egingo dira, hau da, herri bakoitzean dauden lekukotza guztietatik egokienak aukeratu eta behin-behineko testuak idatzi.



Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea, eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.

Hebreeraren Akademia

Hebrear Hizkuntzaren Akademiak (Ha'academia Lalashón Ha'ivrit) eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute 2016an, beren arteko harremanak landu, elkarri informazioa eman eta agerkariak beren artean trukatzeko helburuarekin.

Sinatutako hitzarmenak bi akademien arteko lankidetzarako oinarriak eta tresnak ezarri nahi ditu, beren ardurako hizkuntzen ganean elkarrekiko azterketa eta proiektuak koordinatuki garatzeko. Besteren artean, elkarren intereseko argitalpenetan lankidetzak bilatuko da. Kongresu, jardunaldi eta mintegiak elkarrekin antolatzeak aukera ere aurreikusten du hitzarmenak. Era berean, informazioa, liburuak, argitalpenak eta gainerako material interesgarriak trukatzeko dituzte elkarren artean.

Israelgo Estatuak sortu bezain laster, 1953an, bertako Parlamentuak Akademia hori hebreera arautzeko erakunde nagusi izendatu zuen, eta, harrezkero, bera da hizkuntzaren ortografia, morfologia, gramatika eta hebreerazko hitzak beste hizkuntzetara letraldatzeko arauak ematen dituena; Israelgo Estatuan nahitaez bete beharrekoak dira arau horiek. Akademiak 23 kide dauzka, eta unibertsitateko irakasle, idazle, poeta, hebreista eta teknikari adituz osaturik dago. Egoitza Jerusalemen du.

Independentzia lortu ondoren legeztatu zen arren, Hebreeraren Akademia lehenago sortua zen, 1890. urtean, Eliezer Ben Yehuda-ren eraginez. Hizkuntzalari horrek proposatu eta prestatu zuen, hain zuzen, hebreera modernoaren berpiztea, bi oinarri hauetan finkaturik: alde batetik, Bibliako eta azken bi mila urteotako hebreera idatziaren tradizioa, eta bestetik, aramera eta beste hizkuntza semitikoak, batez ere arabiera kontuan izanda. Hark proposaturiko hebreera batu hori, irakaskuntzari eta Estatuaren laguntzari esker, gaurko israeldar guztien ohiko hizkuntza bilakatu da.

Aipaturiko hitzarmenaren testua euskaraz eta hebreeraz idatzirik dago. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Moshe Bar-Asher Hebrear Hizkuntzaren Akademiako presidentek sinatu dute.

Euskararen Erakunde Publikoa

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak 2016. urteko betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena sinatu dute. Bi erakundeon arteko lankidetzaren lerro nagusiak berrestez gain, 2016an egin beharreko lanak zehazten ditu dokumentuak. Besteak beste, EEPk Jaurlaritzarekin batera antolatzen duen Proiektu Deialdian aurkezten diren lanen hizkuntza kalitatea zaindu, toponimoen grafia egokiari buruzko galderei erantzuna eman, aholkularitza zerbitzu bat eskaini, edo Euskal Corpus Onomastikoaren datu-basea osatzen jardun du Akademiak aurrean. Horrez gain, eta akordio berriari esker, *Piarres Larzabalen antzerkigintza 1950-1982* liburua argitaratu da.

Aspaldikoa da Euskaltzaindia eta EEPren arteko lankidetzak, erakunde bien arteko lehen hitzarmen-markoa 2008an izenpetu zen. Aspaldiko hitzarmen-marko hark bi erakundeek elkar aditurik egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten zituen, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen. Segidan, 2014-2016 epealdirako lankidetzak esparrua finkatzen zuen akordio-marko berria sinatu zuten erakundeek; xehetasunak, aldiz, urtero finkatzen dira, hitzarmen orokorrari lotutako gehigarri bat izenpetuz. Beraz, orain izenpetutakoa hitzarmen-marko horren eranskina da.

Euskararen Erakunde Publikoa (www.mintzaira.fr) edo EEP (frantsesez, Office Public de la Langue Basque, OPLB) Ipar Euskal Herrian euskararen inguruan lan egiteko botere publikoak 2004an sortu zuten lehen erakunde ofiziala da. Bere helburu nagusiak bi dira: batetik, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea eta definitzea, eta, bestetik, horretarako behar diren finantza baliabideak bermatzea.

Baionako Udala

Baionako Udalak eta Akademiak lankidetzeta-hitzarmen historikoa izenpetu dute Baionako herriko etxean. Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute dokumentua.

Zehatz-mehatz, hauek dira 2016. urtean hitzarmenak ahalbidetu dituen egitasmoak:

- *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren aurkezpena; Erlea literatura al-dizkariaren aurkezpena; XXI. Jagon Jardunaldia; eta Euskaltzaindiaren Hiztegi berriaren aurkezpena.*
- Honela, Baionako Herriko Etxeak onartzen dio Akademiari euskararen araugintzan eta normalizazioan egiten duen lana, erakunde gisa “erreferentziakoa” dela aitortzen duen heinean.

Akordioan jasotzen den legez, 2016an, Euskaltzaindiak ondoko lanak hartu ditu bere gain: Baionako Herriko Etxeari eta biztanleei laguntza eta aholku ematea, euskararen normalizazioan, garapenean eta gizarteratzean; Herriko Etxeak eskatzen dion hizkuntza aholkularitza ematea, bereziki toponimoen hizkuntza egokitasunari dagokionez; eta euskararen estatusari buruzko aholkularitza eta lanak egitea, bereziki jardunaldiak, bilkurak, aurkezpenak eta abar, euskararen aurrerapenerako xedea aintzat harturik.

Bere aldetik, Baionako Herriko Etxeak onartzen dio Akademiari euskararen araugintzan eta normalizazioan egiten duen lana, erakunde gisa “erreferentziakoa” dela aitortzen duen heinean.



Andres Urrutia, euskaltzainburua, eta René Etchegaray, Baionako alkatea, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

EiTB

2016an, Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak 2020ra arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, EiTBren Bilboko egoitzan.

Akordioaren bitartez, euskara eredu estandarra zabaltzen lagunduko du erakunde publikoak, bere plataforma eta hedabide guztietan; horrez gain, euskalkien aberastasuna bistaratzen eta aintzat hartzen ere ahaleginduko da. Bestetik, EiTBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera ematen zaio Euskaltzaindiari.

EiTBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmen horretan jasotzen den bezala, EiTBko hedabideek kalitatezko euskara eredu estandarra zabaltzen eta finkatzen lagunduko dute ondorengo lau urteetan. Aldi berean, euskalkien aberastasuna bistaratzen eta aintzat hartzen ere ahaleginduko dira, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Aurretik egin izan den legez, irizpideak EiTBren estilo liburuak jasoko ditu.


Hori guztia aurrera eramateko, EiTBk Euskaltzaindiaren laguntza eta kolaborazioa izango du (batik bat, Hizkuntza Kalitatearen Behatokitik eskainiko dio laguntza hori Akademiak). Gainera, EiTBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera ematen zaio Euskaltzaindiari, UZEI, Elhuyar eta IXA taldeekin batera garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia osatu ahal izateko.

Halaber, eta urtean behin, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak txostena helaraziko dio EiTBko zuzendaritzari, erakunde publikoaren hedabide bakoitzean erabiltzen den hizkuntza-ereduaren zuzentasunari eta egokitasunari buruz aholku emateko eta euskararen garapenean bidelagun izateko helburuarekin. Horrez gain, Akademiak erantzun zuzena emango dio EiTBren Euskara Zerbitzuari, eta EiTBren zuzendaritzak beharrezko ikusiz gero, hitzarmen horrek barruratzen dituen gaietan trebakuntza ikastaroak, jardunaldiak edo informazioa emango dio Akademiak.

Azkenik, hitzarmen berriaren xedeak bideratzen eta erakunde bien arteko harremanak egoki kudeatzen laguntzeko jarraipen-batzorde bat eratuko da;


Euskaltzaindiaren webgunek 818.371 bisita izan ditu 2016an eta webguneko orriek 3.140.043. Era berean, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak Euskal Onomastikaren Datutegia eta Hiztegi Batua izan dira. Hauek dira datuak:

www.euskaltzaindia.eus	2016
1) Bisitak guztira	818.371
2) Bisitak web orrira:	
Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	150.887
Hiztegi Batua	70.993
Euskaltzaindiaren arauak	67.461
JAGONET zerbitzua	57.390
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	487.146
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	1.044.723
Argitalpenen katalogoa	19.681
Plazaberri bloga	26.918
Beste guztiak	564.086
Web orrien bistaratzeak, guztira	3.140.043



erakunde bietako kide bana izango du jarraipen-batzorde horrek. Gogoratu behar da 2003. urtetik datorrela EiTb eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak, eta orduetik kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzearen alde egin dutela bi erakundeek.

Euskaltzaindikoko egoitzan, 2016an, izan diren bisitak:



Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu-irabazien kontua PKF ATTEST auditoria etxeak ikuskatu ditu. 2016ko ekitaldiari dagokion txostenean esaten da *“2016. urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2016ko abenduaren 31n EUSKALTZAINDIA erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute eta baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren legeriaren arabera, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin”*.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta Akademiak daukan ondasunen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatzeko beharrezkoak diren baliabi-deekin batera (Pasiboa).

- Aktiboak erakundeak dituen ondasunak (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua...) erakusten ditu.
- Pasiboan aktiboan bildutako ondasunen finantzaketa iturriak zehazten dira: erakundearen ondare garbia, hornitzaileak, bankuak...

Urteko Emaitzen Kontuak Euskaltzaindiak erreferentziako ekitaldian izandako diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko aldea ekitaldiaren emaitza da. 2016ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondorioz adierazgarrienak:

- 1.- Euskaltzaindiak ekitaldi orekatua izan du. Jasotako eta gastutako kopuruak berdintsuak izan dira.
- 2.- Diru-sarreraren zenbatekoari dagokionez, 2016. urtea aurrekoaren antzekoa izan da, bietan diru-sarrerak 2,6 milioi euro ingurukoak izan baitira. Ez dugu ahaztu behar, aitzitik, Akademiaren jarduna sostengatzeko ardura duten administrazio publikoen ekarpenak %30etik gora murriztu direla 2009 eta 2016 bitartean.

Badirudi diru-sarrerak egungo mailan egonkortuko direla eta, beraz, hurrengo urteetan ez dela igoerarik izango. Egoera honen aurrean, Akademiak lehentasunak zehaztu ditu, kostuak doitu ditu eta gastuetako kontu-sail guztietan efizientzian oinarritutako kudeaketa-eredua

ezarri du. Hori guztia, bere proiektuetarako finantzaketa-iturri berriak bilatu beharra ahaztu gabe.

3.- Azaldutako zailtasunak gorabehera, Euskaltzaindiak 2016. urterako aurreikusitako programa bete du. 2017an ere horretan segitu nahi du, ematen dituen zerbitzuen, batzordeen eta bideratzen dituen ikerketa proiektuen bidez gizarteari balioa emanez, horiek guztiak egunetik egunera gero eta kalitate handiagokoak izan daitezen, eta ahalik eta herritar eta erakunde gehienengana irits daitezen.

Euskaltzaindiaren Balantzea eta Galdu-irabazien kontua



I. Balantzea (eurotan)

AKTIBOA	2016/12/31	2015/12/31	PASIBOA	2016/12/31	2015/12/31
AKTIBO EZ-KORRONTEA	712.925	808.565	ONDARE GARBIA	1.544.413	1.573.086
Ibilgetu ukiezina	13.867	22.517	Fondo propioak	1.185.802	1.187.058
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	4.871	7.167	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.187.058	1.188.969
Aplikazio informatikoak	8.996	13.350	Ekitaldiko soberakina	(1.256)	(1.911)
Ibilgetu materiala	668.457	755.566	Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	358.611	386.028
Lurrak eta eraikuntzak	531.471	561.422			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	136.986	194.144			
Epe luzeko finantza-inbertsioak	30.601	30.482			
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.482			
AKTIBO KORRONTEA	1.203.326	1.007.342	PASIBO KORRONTEA	371.838	242.821
Izakinak	19.341	13.457	Epe laburreko zorrak	5.451	5.898
			Beste pasibo finantzarioak	5.451	5.898
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	7.696	12.945	Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	366.387	236.923
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	673.797	749.933	Hornitzaileak	118.403	63.332
Hainbat zordun	50.804	65.804	Langileria	13.380	49.125
Zordunak, Herri Aginteak	622.993	684.129	Hartzekodunak, Herri Aginteak	234.604	124.466
Epe laburreko finantza-inbertsioak	800	680			
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	501.692	230.327			
AKTIBOA GUZTIRA	1.916.251	1.815.907	PASIBOA GUZTIRA	1.916.251	1.815.907

II. Galdu-irabazien kontua (eurotan)

EKITALDIA	2016	2015
Erakundearen berezko jardueraren sarrerak	2.644.674	2.618.204
Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak	58.042	74.881
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.586.632	2.543.323
Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa	5.884	(1.596)
Ustiapeneko bestelako sarrerak	86	-
Pertsonal gastuak	(1.478.585)	(1.530.394)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.064.546)	(1.215.054)
Gizarte-zamak	(414.039)	(315.340)
Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.091.748)	(1.008.364)
Kanpoko zerbitzuak	(1.089.830)	(1.008.083)
Tributuak	(1.899)	(797)
Merkataritza eragiketarik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(19)	516
Ibilgetuen amortizazioa eta hondatzea	(102.634)	(106.594)
Ekitaldiko soberakinari intsuldatutako kapitaleko diru-laguntzak	27.424	27.826
USTIAPENENKO SOBERAKINA	5.101	(918)
Sarrera finantzarioak	90	126
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	90	126
Horniduren eguneratzea	-	-
Gastu finantzarioak	(6.447)	(1.119)
Hirugarrenetikiko zorrenak	(6.447)	(1.119)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	(6.357)	(993)
EKITALDIKO SOBERAKINA	(1.256)	(1.911)



EUSKALZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE